

1. Nue ezanri zituzten eguralak?
2. Gero zer egin zuten
3. Muntza zaitzete otoruntzag edo apairuag.

PIARRES

LANEAN 7

Eta, egur alimaleak jaun erretoraren korralean ahalik eta hobekiena ohatu¹⁹ ondoan, orga tinkatzeko burdinak eta gatheak¹¹ orgetan emanik, hartakotzat ethorri beren haur zontzeekin igortzen zituzten aziendak etxerat; eta, eskuak behean pitta bat garbiturik, athorra-lephoa hetsirik, beren jaun- k soinean emanik, hamikatuak¹² jartzen ziren hain ongi merezi- ta zuten otruntzaren aintzinean. Jaun erretora heien erdian. Eta, kurutzearen seiñalea eginik, ixil ixila sakda-begiduna¹³ eskuetan airean husturik, batzuetan untzitik beretik azken xortaño hek hurrupaturik, lehenbiziko basoa ondoraino husturik, hasten ziren itzain¹⁴ maiteak oro, guziak betan elheketa. Eta loria zen egiazki heien orduan entzutea. Beren mahain-oihala pulliki-zikindu gabe- bazerrean emanik, edo belhaunen gainean hedaturik, ari ziren ari!

Oro unhatuak¹⁵, ongi unhatuak, akhidurak eta behar bada lehenbi- ziko arno xorta harek matheletan gorrituak, elgarren kitzikatzetik ez ziren athertzen. Batek zortzi sukil ekarri; bertzeak, sei; baina gaitzak, egundaino nehorak holakoik ez baitzuen oraino orgetarat altxatu! Frantxixkok Pettan kitzika, Pettanek Frantxixko eta bertze zontze ere bardin. Xarlex hirriz bazterretik, Martzel hala hala; Ximun aldiz, ohartu gabea, mahain azpirat, gelditu gabe, thu eta thu. Jaun erretora hirriz bertzeri, bainan beltzurika¹⁶ Ximuni... Hots, hiruzpalau oren goxoak iragaiten ziren, nehor ohartu ere gabe denbora bazoala, jan, edan eta hirri Damurik ez zen han Xuriko, Piarresen xakurra, mahain azpirat uste gabetarik edo "rtzela erori hexurren biltzeko! Gasna bat hauta gelhientsuek "terrerat utzirik -gasna etxean ere aski maiz jaten zutela-, kafe on bat lehenik, pattantunik gabeko *koñaka* gero guziak edanik, lñaziok hasten zuen Baztanaldeko kantu pullit bat, Jan Batitek aldiz Senpereko bat ederragoa oraino, eta, zazpiak eta erdiak irian, bazoazin guziak etxerat... Goxo zen jaun erretoraren etxean..., bainan goxoago oraino beren etxean!

III ADITZ IKASKUNTZA.

31. Bazoazin 32. IZAN. Ev. 1^{re} forme
 33. IZAN. Ev. 2^{me} forme 34. UKAN. Ev. 1^{re} forme.

31. JOAN. Indicatif.

Présent

Imparfait.

| | |
|----------------------|---------------------|
| Ni noa = je vais | Nindoan = j'allais |
| Hi hua = tu vas | Hindoan = tu allais |
| Zu zoatzi = vs allez | Zinoatziin = |
| Hura doa = | Zoan = |
| Gu goatzi = | Ginoatziin = |
| Zuek zoazte = | Zinoazten = |
| Hek doatzi = etc | Zoatziin = etc. |

32. IZAN. Suppositif. éventuel 1^{re} forme

| |
|----------------------------------|
| Ni izaiten banintz = si j'étais |
| Hi izaiten bahintz = si tu étais |
| Zu - " - bazintz = si vous étiez |
| Hura - " - balintz = |
| Gu - " - bagintz = |
| Zuek - " - bazintz = |
| Hek - " - balintz = etc. |

Eventualité prochaine : à présent, tout à l'heure

33 IZAN. Suppositif éventuel 2^{me} forme

| |
|---------------------------------|
| Ni izan banindadi = si j'étais |
| Hi izan bahindadi = si tu étais |
| Zu izan bazintz = si vous étiez |
| Hura " baladi = s'il était |
| Gu " bagintz = |
| Zuek " bazintz = |
| Hek " balintz = etc. |

Eventualité éloignée : éventuel futur
 : demain, un jour indéterminé